

ANAITASUNA

"EUSKERAZALEAK" ALKARTASUNAREN LENENGO BATZARRA



Bilbaon Carlton Hotelean

Urtarrillaren (ilbeltzaren) 23an batu zan Bilbaon, Carlton Hoteleko saloi baten, EUSKERAZALEAK Alkartasunaren lenengo batzar nagusia.

Maiburuan, Jesus Oleaga jauna; ta bere inguruan, oraiñarte Alkartasun au bere lenengo pausuetan zuzendu dabena, legepean sartu arte. Saloian, 290 andra-gizon, au da, bazkide guztiak.

Oleaga jaunak emon eutson batzarrari asierea, erderaz eta euskeraz agurra irakurriaz. Gero, irakurri egin ziran Araudia (estatutoak), Gobernadorearen Alkartasunari emoniko baietza ta Akta fundazionala. Jarraian, Josu Atxak, euskeraz eta erderaz irakurri eban Alkartasunaren lenengo deia, Bizkaiko euskaldun guztiak egia, euskereari eutsi ta Alkartasunean sartzeko.

Urrengo, Montiano jaunak irakurri eban oraiñarte egin dan lana. Egia esateko, orain egun gitxi lortu da Alkartasunarentzat legearen baietza; baiña olan ta guzti be, garrantzi andiko gauza bat egin da: euskera ikastaldiak zabaldu Bilbao Erri Irratian eta egunkari bitan: *El Correo Español - El Pueblo Vascon* eta *Hierron*. Bizkaiko Ahorro Kaixek eskeiñi dau orretarako dirua; ta Coca Colak zabaldu dauz bere kontura 15.000 euskal gramatika, ezer kobratu barik, eta guztiak agortu egin dira.

Gero, Jose Luis Bengoak irakurri dauz diru kontuak. Lenengo illabete oneetan, ez dira kuotak kobratu, Alkartasuna oraindiño lege barruan sartu barik egoalako; ta bere gastuak ordaintzeko, eskupeko batzuk artu dira (nagusiena, Bilbaoko Gotzaiñarena: 10.000 peseta).

Irakurte onek amaituta gero, Artezkari Batzordea edo Junta de Gobierno izentatuteko ordua eldu zan.

Oleaga jaunak, oraiñarte Alkartasuna zuzendu dabenen izenean, kandidatura bat irakurri eban, 25 izenegaz, eta galdetu eban ea onartzen zan. Bazkide asko jagi ziran, euren eritxia emoteko.

Beiztegi jaunak esan eban, 25 geiegi zirala; eta 25 izen orreetatik 13 arturik, beste kandidatura bat proposatu eban, izenak irakurriaz. Argitu egin eban, izen orreek batzean, alde batetik ez ebala izen barririk sartzen; eta bestetik gogoan euki ebala Alkartasunaren eginbearra, izparringiak, ikastolak, eta abar kontuan arturik.

Onen atzean, Garaizabal, Albisu, Zelaia, Bizkarra ta beste asko jagi ziran, kandidatura baten edo bestearen alde itzegiñaz. Gonzalez Sasia jaunak eskatu eban abade ta prailleren bat sartzea, kontuan arturik eurak izan dirala euskerea geien landu dabena eta zeregin orreri aurrerantzean be geien ekingo deutoenak.

Gero beste asko jagi ziran, euren artean Burgoa, Makua, Bengoa.

Oleaga jaunak, eritxiak argi ez egozala ikusirik, 10 minutuko deskantsua emon eban, alkarren artean itzegiteko, autarki edo botoak emon baiño len.

Esandako denporea igarota, barriro batu zan batzar nagusia. Andra bat jagi zan (ez eban izenik emon, baiña izlari on baten moduan egin eban berba), eta beste lau-bost bere atzean, eritxi desbardiñak emonaz.

Oleaga jaunak ebagi eban diskusiñoa, eta esan eban argi egoala kandidatura bi agertu zirala ta botoak emoteko ordua zala.

Jagi ziran botoak emon gura ebenak; eta paperak kontatuta gero, au agertu zan:

Zuzendarien kandidateak: 46 boto.

Beiztegiarenak: 90 boto.

Batzarra amaitu baiño len jagi zan Patxi Ansola, eskatuz Alkartasunaren bazkideak ejenplua emon bear genduala euskerea ikasten (ez dakienak) eta urrengo batzarrak euskera utsean egiten. Txalotua izan zan.

Oleaga jaunak ederto eroan eban batzarra; eta itzegein eben guztiak, iñor mindu barik emon ebezan euren eritxiak. Asiera on bat. Eta orain, lanera. Ea guztion artean emoten deusagun euskereari bultzada on bat aurrera Bizkaian.

Bizkaitar irakurleak: Euskerazaleak Alkartasunean sartu gura badozue, idatzi, eskribidu zuzenbide onetara:

EUSKERAZALEAK

Vda. de Epalza, 12, 2.º dpto. 1.º

BILBAO (5)

Urteko kuotea: **gitxienez** 100 peseta (emendik gora, norberak emon gura dauana).

Xabier Gereño

ARRATIATIK

—Bai, Yurrebaso. Itxartu, Billaro! Baiña Billaro bakarrik? Zeuk eta Arratiako ballara osoan bizi garan guztiok, guztiz garbi dakigu, ez dala Billaro bakarrik itxartu bear dauana, Arratia guztiak itxartu bear dau.

Begiratu zer esan eusten Arratiako gazte batzuek: amar urte oneitan Arratiakoak ez badira euskal problemaren jabe egiten, guztiz gatxa ikusten dabela, Arratiako euskaltasuna ta euskera bizirik eukitea emendik amar urtera.

Baiña zer? Itaun bat egiten deusat neure buruari: au entzunda, geldi egon bear ete gara? Bestetan lez, berba utsetan amaitu bear ete dogu?

Neuk beintzat, neure ikusmen kaxkarra lagun dodalarik, gatx guztien artean ikusten dodan aundienetako bat auxe da: euskaltasun eta euskeraganako zaletasun gitxi dagola Arratiako abadeen artean; geiago, euskera ez dabela erabilten eta ez dabela ikusi gura, batonbat kendu ezkeru.

Zertarako gura dogu erlejiñoa, bera dala-ta, geure kultura, herritasun eta gizatasunaren aurka badago? Zertarako emon bear deutsegu dirua abade orreeri, euren eguneroko ogia erosteko, egunero eurak geure gizatasuna zapalduten eta ilten badabiz? Zertarako umeak fraille etxeetara bialdu, erdal herrirako badira, ta orde, ia euskeraz ez dakien abadeak ona bialduten badabez? Dotriña gaiñetarikoa da, ez bada pratikan ifinten.

Itxartu, Arratiako mutil eta neska euskaldun zarenok eta gogor jokatu, egia geugaz dago-ta.

Ikasle batzuk

BERMEOTIK

Bermeon be asi dogu urte barria. Ze ederra dan Bermeo, gizonak etxean diranean. Gure Bermeo, gizonak barik, ez da Bermeo-ta. Gabon aurretikutik ona, itxastarrak datozeanean, gure erriaren biotza goraka asten da.

Ondo egin doguz jaiak. Naiko ondo. Orain, emen dator eguneroko aldatz gora. Ba dakizue... len asko ekarri ez, ta ekarri genduana be «erregiek» eroan dabe. Zer egiteko gagoz orain, San Josetararte? Gure amak ba dauko zereginik naiko, gu lako semeakaz. Ondikarren garrikoa istututeko esango deuskue... Txo, ba nik neuk aspal-dian daukot azkenengo zuloan.

Ta, Basauritar barriak zer esango dabe? Olako markarik! Bermeotarrak, Gabonetan Basaurira. Neska ta mutil gaiñera.

Gure amak esaten dau, euren denporan Gabon Gabean etxean guztiak; kanpora iñor bez. Orain aize barriak datoz, Zorionak!, an egon zarien kuadrillakueri.

Urtarrillaren 7an, txapazko arrain ontzi barri bat bedeinkatu dau Mañuko D. Gozzonek. Itxas-gane dau izena. Erramon Larreategi'tarrak eta lagunak ontzi ederra egin dabe. Zenbat kosta iaken nok daki? Egin bearko da lana.

Barru ta kanpo ikusi gendun, eta ederra baten. Dakar aldetik suerte on bat izan daizuela Itxas-ganeko guztiok.

BURGO MENDI

MUNGIATIK

Jaia izan zan.

Urte zarra amaitu zan. Guk aurten poz aundi bat izan dogu.

Beti ta edonun ez dira gauza ederrak ikusten. Jai kutunak ez dira nonai sortzen. Nekez, baiña oraingoan bai, egiz, jokatu dozue Mungiar gazteok. Gogoz saiatu zaree geure abesti ta dantzetan. 1967ko Abenduaren 31an, goizeko amaika ta erdietan, «Ibaigane» antzer-tokia gaztez beterik egon. Iñoz ez lez. Olakorik ez dot ezagutu.

Oraingoan bai, egiz, gazteak gazteeri dei egin eutsen. Erriko bizia artzera gaztedi ederra suspertu zan. Aurrera gazteak! Aurreku gogotsu baten bidez Atxuriko Aitorrek erri barria agurtu eban.

Txaloka, bat eginda egoan gaztedi zoragarria. Garaitasunaren asikerea zan. Ondoren, gazteak irunaka, biñaka ta banaka agertu ziran, gitarrak, erriaren gogoko abesti samurrak esaten.

A zan giroa. Bizia ta poza agertu zan txaloen indar gogorrean...

«Artetxe zortzikoteak» biotz girorik gorenagaz lilluratu eban jendea. Aurreraka ederra egin dozue, gizon ta gazteok. Ta erriak be ondo ezagutu eban. Orregaitik eskatu eutsuezan abotsez eta txaloz abesti barriak. Entzungarri izan jakuzan. Zuen abeskera biguna, batasun eder baten, ezteki sartzen zan belarri barrura.

Neskatilla ta mutil dantzariak, asko jo bear izan dozue. Gogoz saiatu zaree. Baiña zuen alegiñak erti biurtu ziran «Ibaigane» antzetokian. Zer gauza ederragorik, erriaren seme-alabak, erriaren sena dantza bi-

dez agertzen ikustea baiño? Bai. Bidea ba dakizue.

«Aurak ikas eizue...» Ori be entzun gendun, neskatilla ta mutil biren artean gitarrak esanda. A zan jaza! Ondarruko gatza, Bizkaiko gogoa, guztia zan bizitza barri bat lez erne-miñetan.

Azkenez, Jokin agertu jakun. Soiñua parprean ekarren. Zazpi urte ta begiak zoli agertzen zituan. Geure bizitzaren arnasa soiñu bidez biztu eragin euskun. Lau abesti jotaldiz barrituta itxi ginduzan. Egia da ori. Ta zu, Jokin, olerki polit bat zara. Zorionak zuri ta zeure etxekeeri.

Oraingoan, agur bero bat gaztedi bizi oneri. Egille ta begiratzailleak, guztiak bat izan ziñeen. Maitasun bat. Argi bat. Itxaropen bat. Guztiori batera zorionak, Gero arte. Agur.

EGIEDER

LAZKAON

ANDIMA ZANAREN GOMUTAZ,
LAZKAON

Belu bada be, aditzen emongura deutset ANAITASUNAREN irakurleeri: iragarrita egoan lez ospatu izan zala, Lazkaoko Aba Beneditarren eleiz andi ta eder ederrean, guztiz andikiro, Abenduaren 17an, gure Andima idazle gomutagarriaren gogo aldezkero euskal illeta meza ospegarria, bertoko lekaide agurgarrien laguntza esker-garriaz, euskal idazleok ederto eraldua.

Bizkaia ta Gipuzkoako euskal idazle aldra andia eldu zan anai maitasunezko eleizkizun unkigarri onetara, **prakadun, kapadun, gonadun** eta abar, eta euren artean, antxe, pozarren ikusi ta besarkatu genduzan: **Ortuzar'tar Imanol** (90 urtedun abadea), **Onaindia Aba, Akesolo Aba, Gereño, «Aurraitz», San Martin, «Ibalan», «Uxola», «Bitaño», «Bordari», «Amillaitz», «Erri-zale», Aierbe** eta abar eta abar, beste antxiñako euskaltzale ezagun askogaz batean.

Eleizea, andia ta dotorea, goi ta be, aurre ta atze, ezker eta eskuma, dana egon zan entzulez bete beterik, eta ezin obeki abestua ta ospatua izan zan **Olaizola** jaunaren euskal meza zoragarria, emoilte ta laguntzaille zazpi lekaide, apainki jantziak izan ziralarik.

Euskerazko meza zoragarri aretzaz, eta berton gure Onaindia Aba agurgarriak egin euskun itzaldi luze ta biotz-unkigarriaz, ez gara iñoz aztuko —ez orixe!—, Andimaren illeta eleizkizun aretara eldu-tako zorion andia izan genduan euskaltzale ta euskal idazle minduok.

GOIAN BEGO, elantxobetar biotzetan!

ZELETA

PROTESTANTEAK, GURE ANAIAK, EUSKALERRIAN

Protestanteak, ez dira landara barriak Euskalerrian. Euske-
rearen aldeko euren ardurea be, ez da gauza barria gure artean.
Aurten ospatuten da eunurtekoa, Eleiza Ebanjelikua Espainian
finkatu zala. Historiak diñoskun lez, mobimentu protestante erre-
formatzaillea naikoa zabaldu zan XVIgarren gizaldian Nafarroa-
ko erreñuan, Joana de Albret Erregiñearen bidez. Ordukoak do-
guz Testamentu Barriaren euskerazko lenengo itzulpena eta bes-
te idazki batzuk, Protestantismuaren aldekoak.

* * *

Natibitate egunean, auzoan daukoguzan anai protestanteeri
Gabon zorionak emotera joan giñean. Kapillako atea —etxe bi-
zitza bat— zabalik aurkitu genduan; eta pozik emon euskun
Artzaiñak bostekoa, alkar izketa mamintsu baterako prest.

Gelatxu baten gitarra soiñua entzuten zan, umetxuen abesti
alaieri lagunduten. Natibitate egunez, Umeen Jaia ospatuten zan;
eta arratsaldeko Festibalerako kantak ikasten egozan.

Len esan dot, protestanteak ez direala gure artean gaurrate
ezezagunak; eta gure izkuntzea be, ez jakela eureri ezezagun
egiten. Oraintsu atara dabez gipuzkeraz orritxu bi, Siñismen
Aitorketa (Kredoa), Amar Aginduak (Eksodutik eta Mateore-
netik batuak) eta Aitagurea ekarten dituenak. Au, asikerea baiño
ez da. Joanen Ebanjelioa be euskeratuten dabilta. Euren ar-
tean, ba dagoz euskeraz ondo dakienak; eta onek egiten dabe
itzulpena Artzaiñen ardurapean.

* * *

—Ba daukozue Testamentu Barria, Leizarraga kalbiñotarrak
1571garrenean ain ondo euskeratua, Joana de Albret Erregiñea-
ren aginduz. Ezin zeinkee barriro argitaratu?

—Bai. Baiña... non aurkitu ediziño zar ori? Alegindu gara
billatzen. Banako batzuk bearko geunkez, ekipuan alkarturik
lan egiteko. Baiña oso gatxa da orduko liburutegian. Bat,
bai ei dago Gipuzkoako Diputaziñoako liburutegian. Ikusi be
egin doguz fotokopiatuta, Leizagarraren itzulpen jatorrizkoaren
zati batzuk, Zallako Paulistak argitaratu daben liburu eder baten.

—Ederto. Baiña zegaitik artu bear dozue ardura ori? Asko
zarie euskaldunak?

—Ez asko. Baiña guk, Eleiza garean aldetik, ezin aztu edo
baztertu geinke euskeraz egitea naiago daben ainbeste baserritar
eta mariñel. Guk, guztieri zerbidu gura geunskioe.

* * *

Euren artean, gitxi dira euskaldun utsak; baiña misie-
tzeak, beartu egiten ditu erriaren izkuntzea ikasten.

Zerbitzu onez gaiñera, berbeta beraren baliotasuna be ikusten
dabe. Jakin egin dot, Donosti ta Bilbaoko Artzain biak euskeraz
ikasten asi direala. Testigantza ederra danontzat!

Eleiza Ebanjelikuko protestanteak, Alkarte bat egiten dabe
lurralde bakotxean. Euskalerrri barrukoak euren artean baka-
rrik Euskal Protestante Batasuna egin bear leukeela dirudi.
Baiña ez da olan. Espainiako beste probintzia batzukaz alkar-
turik dagoz: esate baterako, Zaragozagaz, Logroñogaz eta abar.
Puntu onetan ez dabe eurak prolemarik ikusten. Diñoenez, errien
batasuna eskatzen deutse euren ekumenismuak. Eleiza Ebanje-
likua ekumenismu zalea da, eta errien muga gaiñetik dago.

Ba leiteke. Baiña, nire ustez, batak ez dau kentzen bestea.
Alkartu leiteke besteakaz, norberaren etxea ondo jagonda geró
baiña.

Euren batzarretan pozik egingo leukee euskeraz, erriak beti
alan egingo baleu; baiña ez ei dabe iñor beartu gura euskeraz
egin naiz entzuten. Katalunian liturgia geiena bertako izkuntzan
egiten ei da, erriak bizitzan be alan egiten dualako. Euskerea
gizonarentzat, eta ez gizona euskerearentzat.

Olan pentsetan dau, euskeraz ikasten dabillen Bilbaoko Ar-
tzain protestanteak, Espainiako Iparralde guztiko Alkartearen
buru danak.

* * *

Mai gaiñeko liburueri begira nengoala, bi ikusi nebazan in-
teresgarriak: «Sincero para con Dios» (Honest to God), John A.
T. Robinson obispo anglikanoarena, eta «La Comunidad viva»,
Dietrich Bonhoeffer Artzaiñarena, nazitarrak Alemanian il ebena-
rena.

—Ez deutsezue janari txarra emoten zeuen ardieri!

—Danetarikoa emoten deutsegu, egia sakondu daien. Liburu
katolikuak be, ba daukoguz emen: De Lubac, Congar eta abar.

* * *

Agur eginda, kalerakoan neure barruan esaten neban: «Oñe-
kaz guztiz ondo konpondu geintezke. Borondate txarra euki bear,
onekaz anaiak lez ez jokaturteko».

Nire ustez, ez da gatxa alkar konpontze au. Lendik be, bate-
ra gatoz gizatasun, humanismo ta siñismenaren oiñarrietan. Ez
jaku besterik falta, errealidade au kontzientzian sartu ta onar-
tzea baiño. Orretarako eragozpenik andienak, ezjakintasuna ta
sasi katolikutasuna dira.

Asko dira oraindiño katolikuen artean, protestante baten
etxetik ni urtekeran, olan berba egin eustanaren antzekoak: «Bai-
ña zelan zabilte zuek protestante onekaz artu-emonetan?»

Erlejiño libertadeari buruz eraturtako lege barriaz, zer? E-
za katolikuak bai egin dauala pekatu, lege orren aurrean in-
geratuaz, gizonak berez daukon eskubidea ta —oraindiño geia-
go— erlejiñoari zor jakon errespetu ta libertadea lege orrek za-
paltzen ditu-ta. Anaien erlejiñoaren alde urteteko adorerik ez
daukon Eleizeak, bere erlejiñoari be uko egiten deutso. Nire
lagun Artzaiñak ez eban esan au; baiña bere begietan ikusi ne-
ban asko sufritzen ebala, Espainian euren Eleizeari, au da, Eban-
jelioari eskubide sagraduena ukatuten jakolako.

Ze politto amarra leiteken erlejiñoa legeagaz!

JOAN ZULAIKA

Kontuz

zer zapaltzen dozun...

SUCOSAN

zapaldu sendo ikara barik.

SUCOSAN

Plastikuzko pabimentu barria, LOSETETAN, naiz
metro bateko zabalerea dauken etenbako ZERREN-
DETAN presentatua.

GARBIA — SENDOA — ELEGANTEA

Denda onetan salgei:

Comercial Buenos Aires, S. A.

Buenos Aires, 3 — BILBAO-2 — Tel. 23 53 64

ANAITASUNA

1

Euskalerriko Anai Txikarrak argitaratua

Zuzenbidea: Irala, 8 — Bilbao-12

GRAFICAS BILBAOK inprimatua

1968 urtarrillak 15

D. L.: BI 1.753-1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12

BILBAOKO ALBISTAK

Erregeen egunean, Urtarrillaren 6an, meza eder bat egin gendun Bilboko euskaldunok, San Anton eleizan.

Igande guztietan dogu meza, euskera utsean, 11,30etan. Baiña egun aretako meza aparta izan zan.

Uriona'tar Balendin txirrin-dulariaren alde eskeiñi gendun, batez be.

Alako betekadarik ezta sarri ikusten. Eleizea ez zan gauza orduko jendetza artzeko.

Abeslari, **San Anton Orfeoia**. Bastidaren meza abestu eben, txistusoiñuz lagundua. Iai orretan abestu eutsen lenengoz zortziko barri eder bat Begoñako Amari. Abesti samurra,

Euskerazko mezak Bilbaon

Begoñako Karmelon	8,—
Deustuko San Felizisimon	10,30
Zurbaraneko Sakramentinoetan	10,30
Deustuko San Pedron	11,—
Begoñazpiko Andra Marian	11,—
San Antonen	11,30
Irabalabarriko Frantziskanoetan	13,—

sarkorra. Eresia, Intxausti illastegi'tar Klaudio abadeare-
iaunak egiña; itzak barriz, Ga- nak.

Izlari ta mezaemoille, Don Klaudio, bertoko txauburua, Elorrioko semea, izan gendun. Euskera txukunean goralduta eban, Berrio-Otxoa ta Uriona lako semeak emoten dauzan Euskalerrria.

Albo errietatik, meza aretara ioanak arrituta egozan, alako mezarik gure errietan ez dalako ikusten.

Zorionak! milla bider Don Klaudiori, erriaren alde asper-tu bariik diardun lanagaitik. Gure errietan, meza bat euskera utsean egiteko bildurrez dagozan abade ta prailleai irakatsi ederra damotsezue.

ZABALE

Deustuko euskal katekesiaren urteroko jaia

San Pedro eleizako saloian batu ziran Deustuko 300 ume, bertako euskal katekesiaren urteroko jaia ospatuteko.

«Gizon bikaiñak» euskal antzerkia, euskal abestiak (ikusi argazkia), abesti zar



eta barriak (gitarra ta guzti, oraingo modeari jarraituaz), euskal dantzak, txistulariak, et abar. Dana, umeak eginda.

Jai pozgarria benetan, euskerea umeen artean zelan erabillia dan ikusirik.

EUSKERAZKO KLASEAK RADIOTIK

Urtarrillaren 20an asi dira fon Oñatibiaren euskerazko metodu radiofonikuaren bigarren kursua emoten, Donostiko «Radio San Sebastián» bitartez.

Kursua 6 illabetekoa izango da, egunean egunean ordu-laureneko ikastaldia emoten dala. Orretarako laguntza osoa Gipuzkoako Ahorru Kaja Probintzialak ipinten dau; bera beti dago prest Euskalerriko gizarte ta kultura lanean lagunduteko.

Kursu onek ondo urtengo dauala seguru gagoz, lenengoa

be ikasbide jatorra izan da-ta, euskerea zabaldu ta indartzeko zelako interesa sortu dauan ikusteko.

Arabako Diputaziño Forala konturatu da euskerazko erri kultureak bere laguntza benetako merezi dauala. Esaterako, euskereari ta folkloreari jagokozanetan, proietu ederrak daukoz. Asmobide orreen barri emongo deutsegu gure irakurleeri datozan banakoetan.

Alemanian

Siñistu eziñezko aldakuntza bat

Eboluziño aundia ikusten dogu aspaldion Alemania Federa-
leko katolikuen artean bakearen alde. Aldakuntza orren sei-
ñaleak, asko edo gitxi, orranemen agertu dira Errepublika
osoan. Baiña seiñalerik argienak, Pax Christi deritxon mobi-
mentuak emon ditu. Oraintsurarte, mobimentu orrek ez eban
gauza andirik egiten izan bakearen alde. Bere arazo printzi-
pala zan, medikamentu, diru ta erropakaz lagundu gerra to-
kietako pobre ta gaixoeri. Orain barriz, lengo zeregiña itxi
barik, beste abiada indartsvago bat artu dau: sendo ta bildur
barik lan egin bakearen alde. Ona emen lan orren ejenplu bat:
Pax Christikoak, beste iñok baiño lenago emon dabe aurpe-
gia Eleiza katolikuan kontzientziatzko kontraegilleen alde.

*Kontzientziatzko kontraegilleak dira, Estaduaren agin-
du baten aurka doazanak, agindu ori —esate baterako,
gerrara joatea— euren ustez justiziaren kontrakoa dalako.*

Alemanian Pax Christiko presidente barriak, Doepfner
Kardinalak, mobimentuko Komite Internazionalaren aurrean
esan dau, katoliku alemanak bakearen alde lan geiago egin
bear dabela. Jarraitu egin bear dabe sakrifizioak egiten, erri
atzeratueri lagunduteko. Baiña gauza guztien gaiñetik prest
egon bear dabe, Alemania Federalean gaur egunean sortzen
asi dan nazionalismuari kontra egiteko, nazionalismu orrek
bakea peligruan ipiñi leike-ta. «Beste edozer baiño lenago
—esan dau Kardinalak—, obatu egin bear doguz artu-emonak
Alemania ta Poloniaren artean; auxe da gure oraingo zere-
giñik aundiena».

PAX CHRISTIREN MEMORANDUM BAT

Katoliku periodiku batzuk esan dabenez, Pax Christikoak,
Doepfner Kardinalagaz batera, memorandum bat egiten ari
dira momentu onetan. Dokumentu orretan, benetako adiski-
detasuna eskatzen da alemanen eta polonesen artean; eta ori
lortuteko, gauza batzuk proposatzen dira, orain urte bi «ale-
man jatorrentzat» tabu zireanak: esate baterako, obligaziñoz-
ko soldadutzea kendu, aleman katolizismua ezkerretarantz
bultzatu, Alemaniaren zati biak onartu, itxi betiko Polonia-
rentzat Oder-Neisse ibaien beste aldeko territorioak.

Memorandum orren kontra aleman katoliku gitxik pro-
testatu dabe. Antza danez, euretariko geienak edozer sakrifi-
zio egiteko prest dagoz, bakea gordetekotan. «Ikusi egin bear
dogu Alemaniako errealdadea, bera benetan dan lez», esan
dau oraintsurengo Municheko eleizgizon ospetsu batek. «Egon
dago or, gure aurrean, Alemaniako Errepublika Demokrati-
kua; eta zutunik dagoz, Alemania bien artean, Oder-Neisseko
mugak, gure gobernu eta aleman asko errealdade orren kon-
tra egonarren».

Frantzian

Profesore ospetsua, abade langille

Joseph Folliet, profesore ospetsua, Europa guztian ezagu-
tutako soziologu ta periodista frantsesa, laster abade egin-
go da.

Irurogetalau urte daukoz; eta azkenengo urteotan, sozio-
lojiatzko profesore izan da Lyoneko unibersidadean. Bere bizi-
tza guztian, periodismuari ekin deutso; eta sendo lan egin dau,
Frantziako katoliku prentseari indarra ta entzutea emoteko.
Orrez gaiñera, liburu asko argitaratu ditu filosofia ta soziolo-
jiari buruz.

Orain, bere erdi zartzaroan, abade egingo da «Pradoko»
apaizen artean.

«Pradoko», abade alkartasun bat da, langilleen alde batez-
bere arduratuten dana. Abadeak eurak, eskulanagaz irabazten
dabe eguneroko ogia, euren Erregleak aginduten deutesen lez.

Abade alkartasun onen nagusia, Lyoneko obispo lagun-
tzaillea da: Alfred Ancel, unada baten abade langille izan
zana eta Kontzilioan parte aundia artu ebana.

Suezian

Geienak ez dabe siñistuten geroko bizitzan

Sueziarrak, gero ta gitxiago siñisten dabe eriotza
osteko bizitzan.

Denpora asko ez dala argitaratu dira, naziño guz-
tian zear egindako itaunketa baten erresultaduak.
Itaunketa orren arabera, 1947garrenean euneko 47k
siñistuten eben geroko bizitzan; orain barriz —ogei
urte geroago— euneko 43k bakarrik. Alandaguztibe,
euneko 99k naiago dabe, eleizgizon batek euren ente-
rruan parte artu daiala eta illobia bedeinkatu.

JAKIN

EUSKAL GAZTERIA
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea
euskerari laguntzea da,
euskerazko kultura egiten saiatzea.

herriaren izpiritu ta kulturaren alde

Urteko sei banakoan arpide saria: 100 pta.

Alea: 25 pta.

Eskatu:

JAKIN
Arantzazu
ONATE (Guipúzcoa)



MANOLO URBIETA

gizon bat.

biotz bat.

erri baten alde.

Euskal musikalaria bat dakargu gaur ANAITASUNAREN orrietara. Manolo Urbieta, Zarautzeko semea. Zarautzen bere balioa sobran erakutsi dauana. Ez Zarautzen bakarrik. Euskalerrri guztian be bai. Ta batez be Gipuzkoa aldean. Emen da entzute andikoa. Baiña ez bear litzaken beste. Auxe da Euskalerrriko gure pekatuetatik larrienerarikoa: baliozko asko ez dirala ezagutuak. Au, bat.

Bilbon, zezeillaren 25an agertuko da, Santiago zineman. An izango dozue musikazale ta euskaltzaleok, bere balioa neurtzeko (ta txalotzeko) une aproposa.

* * *

—Danok dakigu, euskal arloan gabiltzanok euskeratik ez dogula irabazpiderik. Orregaitik ikusten zaitut «Caja laboral» onetan birrean. Euskera barrutia ez da dirubidea, baiña bai espiritubidea. Dirubideak barik, Euskalerrriaren aldeko lanak itauntzen deutsudaz orain.

—Zuk diñozuzan nire «euskal espiritubideak» oneexek litzakez: «LOS NAYA», «OLESKARIAK», «ZARAUTZEKO GAZTETXOAK», tabar.

—Goazen banan banan. Lenengo, «Los Naya». «Los Naya» zer da?

—«Naya» dantza etxearen betiko orkesta tituluduna. Donoño tresnetan-da oso aurreratuak gagoz. Abeslari nagusia, Donato Larrañaga da, etorkizun andiko mutilla.

—Parkatu, baiña au, «Los Naya» taldea, txarto ez banago, ez dago berez beintzat, Euskalerrriaren alde lan egiteko.

—Berez berez ez dago. Baiña kontuan eukizu euskeraz be emoten doguzala dantza kanta batzuk. Ta baita orkesta orretaz baliatzen dirala umetxoen norgeiagoka ta beste euskal jai batzuk.

—Zer zara zu or?

—Fundatzailea. Ta zuzendaria.

—«Oleskariak», esan dozu bigarren. Talde au bai, entzunagoa da euskal munduan. Zergaitik?

—«Oleskariak» taldeagaz erriz erri ibilli garealako. Ta azkenengo aldiz Mondragoen Euskalerrri osoko zortzikoteen lenengo saria irabazi gendualako. Ta beste arrazoi askogaitik.

—Testigu naz. Ba dakit zuen zortzikote au erriari atsegin jakola. Zer diñozu?

—Baietz. Begi onez ikusten gaitu beti erriak. Bizkaian dagon ezkerro, Lejonako gertakizuna: naizta lenen saria beste bateri emon, geu geratu giñan erriaren biotzean irabazle. Ta beti ola. Asikeratik gaiñera. 1964an sortu giñan zortzikote

moduan. Urte orretako norgeiagokan 4garren urten arren, entzuleentzako gogokoen zan zortzikote lez presentatu ginduzan antolatzaileak. Beste adibide bat: zezeillean presentatu giñean lenengoz, ta aprillean «Columbia» disko etxeak kontratu bat eskiñi euskun.

—Zeri zor deutzazue zuen arrera abegitsu ori?

—Arrazoi askori. Baiña batezbe, erriaren ondoan egoteari ta beste iñok abesten ez dituan abestiak kantetan doguzalako. Orregaitik egin dodaz erri abestien konponketa, musikaegite ta beste lan batzuk.

—Musikagille lez zer egin dozu?

—Armonizaziño asko, abesti asko.

—Ezagunenak?

—Ara izen batzuk: Sorterritikan urruti.—Mendien deia. Amodiotan.—Binbili.—Euskera, oi euskera.—Gulu-gulu.—Euskaldunak euskeraz.—Zein ederra.—...

—Puntu onetan, azken itauna: zure birrean zein ipinten dozu lenengo: artea ala mensajea?

—Eginkizun askotan, arlo baten alderdi bi direala uste dot, artea ta mensajea. Ez dagoz asarre. Baiña aukera bat egin bear baneu, mensajearen alde jarriko nintzake. Arteari baiño mezuari emoten deutsat inportantzi geiago.

—Diskorik bai?

—«Columbia» etxeagaz bi daukoguz ta «Pax» etxeagaz bat. Eta orain zalantzan gagoz «Hispanavox»-egaz atara edo ez atara.

—Aurrerantzerako asmorik?

—Ondo goazelakoan, jarraitzea ta obeagotzea. Orretarako, «Oleskariak» zortzikote lez il egin dogu. Orain «Oleskariak» amaseikotea da. Elburu ta lorkizun bardiñak daukoz, zortzikotearenak. Orain indar eta kantu ots geiago emon deutzagula, bakarrik. Errez izan jaku amaseikote au eratzea, zale-tasun itzela dago-ta. Barriz diñot: zortzikotearen xede bera dauko.

—«Oleskariak» talde barri onegaz urten dozue iñora?

—Bai, ta ez baten bakarrik.

—Esate baterako?

—Abestalde onegaz izan dogun jardunaldirik nagusia Frantzia aldean izan dogu. Mont de Marsan eta Saint Sever errietan abestu gendun. Esito zaratatsua, ango egunerokoez ekarrenez. Eta Landesko uriburuko (Mont de Marsan, alegia) Gobernuan be egon giñan kantu kantari, ta bertan, Euskalerrriko enbajada bat bagiañ lez artu ginduezan. Pozik gagoz.

—Goazen aurrera. «Zarauzko gaztetxoak». Pasa dan urteko abenduaren 24an neu be Zinema frontoian izan nintzan. Ba dakit zer dan a. Ta gertakizun zoragarria dala esan neike. Zarauzko ainbeste ume ta mutiko, bai kantuz eta bai deklaraziñoz, an agertu jakuzan. Danak eta dana euskeraz. Norgeiagokan, nor txapeldun urten. Urtero ospatzen da, ta mezezi dau jarraitzeak.

Esaistazu, Manolo, zelan sortu zan norgeiagoka au?

—Orain amar urte Euskeraren Eguna antolatu zan Zarautzen. Urrengo urtean Lizardi zanari goratzarre, omenaldi lez. Ta ez dakit zelan otu jatan konkurso ori, norgeiagoka ori antolatzea: abestiak, olerkiak eta ipuiñak sartzen dira or.

—Ta gaur arte jarraitu dau?

—Bai. 1.000 ume-mutiko pasako ziran ortik. Zeaztasun batzuk izan ezik gaiñera, dana dago asikeran lez.

—Zergaitik sortu zendun norgeiagoka au?

—Euskera salbatu guraz, orduko alegin desesperatu bat izan zan. Umeen ao goxoan euskera ez eitean gal.

—Ta fruturik ikusten dozu?

—Zein neurritan ez diñot, baiña euskeraren alde giro apropos bat sortu dogula bai. Zarauzko ikastola, ein batean, sortutako giro orren frutu lez ikusten dot nik. Ta auxe da gure saririk estimagarriena.

—Ikusi zaitut nik iñoiz errietan emon dozuzan jaialdietan ume ta guzti. Zeintzuk dira umeok?

—Ementxe Zarauzko norgeiagoka onetan presentetan diranetatik autatuak dira. Batzuk kantuan, beste batzuk olerkian, beste batzuk ipuiñetan. Nagusi diranak-edo. Oneekaz, «Oleskariak» taldeagaz ta «Los Naya»-gaz ibilli gara an ta emen.

—Nun?

—Plazenzia Armetakoan, Mondragoen, Donostian, Arantzazun, Legorretan, Eibarren, Azpeitian eta Getarian.

—Bizkaia aldean ba zarie ezagunak?

—Zortzikote lez bai, ostantzean oraindiño ez. Zortzikoteagaz, Bilbon, Lejonan, Durangon eta Markiñan egon gara.

SANTIAGO APOSTOL KOLEJIOKO ZINEMA SALOIAN

Musika ta kantu aldi ederra

«Oleskariak» — «Los Naya»
«Zarauzko Gaztetxoak»

Zezeillak 25

Goizeko 11,30etan asiko da

Sarrerea: 25 pta.

—Zuen urrengo jardunaldia nun da?

—«Oleskariak» amaseikoteagaz Gazteizera goaz il onen 27an edo 28an. An Euskalerriko konkurso bat daukagu, Arabako musikarieren musikalanak interpretatuz.

—Irabazi baietz, diñot. Ta gero Bilbora, ezta?

—Bai, Bilbora! Zezeillaren llan an izango gara, Santiago zinema lekuan. Bizkaian itxaropen andiak daukaguz.

—Nortzuk zoaze?

—Daukogun onenagaz goaz ara. Esango deusut: «Oleskariak» erabarrtua, Luis Amilibia, Donato Larrañaga «Los Naya»-gaz, «Zarauzko Gaztetxoak», Zarauzko Txistulariak.

—Ederto. ƒai nagusia izango da axe. Ba dakit zer diñotan, bein baiño geiagotan entzun deusuet-eta. Bilbok uler-tuko ta eskertuko zaitue. Seguru nago: Zarauzko itxas aizeak garbituko dau Bilboko auts zikiña.

Zori on!

Agur. Manolo. Erritik urbil ta urren dagoan gizona, bere denpora ta dirua Euskalerraren alde eskeintzen dauan gizon bat agurtu dot.

joan mari torrealday



Aurreratuta daukozun dirua gordeteko
BIZKAIKO AHORRU KAJA
dozu onena

Etxe nagusia: Pl. España — BILBAO — Tel. 243600
13 sukursal Bilbaon

64 sukursal Bizkaiko erri nagusietan
Madrilleko Etxea: I.C.C.A., Alcalá, 27 - Tel. 2214995

BIZKAIKO AHORRU KAJEAK

Bilbaon eta Probintzia osoan lanik zabalena egiten dau benefizentzia ta gizarte saillean, eta laguntzarik probetxugarriena emoten dau osasun kontuan.



HEMPEL'ek

eskintzen deusut, eskura ipiñiaz,
itxasontzientzat margorik onena
HEMPEL izena

Ludi osoan ezaguna.

BILBO-ko ordezkaria: JOSE LUIS ALDEKOA
Avda. del Ejército, 31, 6.º A
DEUSTO-BILBAO - Tel. 233783 - 219143

Etxe Nagusia Barzelonan:

Entenza, 85-87 - BARCELONA-15
Tel. 223 24 27 — 223 39 23 — 223 4687
Telegramak: HEMPATURI

Jakingarriak

Erieak dirala-ta, ba zenkian...?

- Erlauntza bakotxean irutariko erle dagozala: langillea, erregiñea ta erlemandoa?
- Erregiñeak egunero iru edo lau milla arrautza egin daitezala?
- Erle langilleak iru edo lau aste besterik ez direala biziten?
- Erlemandoa erregiñearen senarra ta berau ernarituteko baiño ez dagoala?
- Kilo bat erle, amar bat milla (10.000) direala?
- Argizaria tripa azpitik botaten daben koipe klase gogor bat dala?
- Kilo bat argizari egiteko zazpi kilo ezti jan bear dabezala?
- Eztia, loretan batuten daben eta gero agotik botaten daben gozo bat dala?
- Udazkenean, ezta urritu egiten jakenean, ezten kolpez langilleek erlemando alperrak ilten dituela?
- Langilleak eztenkadea egiten dauanean, eztena galduaz bizia-bere galtzen dauala?
- Erle bakotxa bost kilometroraiño joaten dala ezti billa?
- Erlemandoak eztenik ez daukola?
- Langilleak dakarren lora uruna kumeentzako janari bikaiña dala?
- Erregin bi batera jaioten diranean, batak bestea ilten dauala?
- Nafarroako toki askotan, erle jaubea ilten danean, erleeri, eurak be il ez daitezkan, auxe esaten jakela: «Erletxuak, egizue argizaria, nagusia il da».
- Euskal Herriko toki askotan erleak diruz ez dirana erosten, beste gauzen truke baiño?
- Eztia, giñarretikoa danean, oso lodia dala ta paper batean eroan daitekela?
- Eztirik fiñena zelaietako dala?
- Erlauntza on batek urtean 40 kilo ezti emoten dituala?
- Eztia onenatariko janaria dala ta osagille askok aginduten dabela?
- Erleak berbeta berezi bat daukela, dantza bidez, lorak nun dagozan alkarrereri esateko?
- Debora* izena hebreo izkuntzan «erle» dala?
- Erleari latinez «apicula», frantsesez «abeille», italieraz «api», inglesezt «bee», alemanez «biene», galixieraz «abella» ta esperantoz «abelo» esaten jakola?
- Erleen artean, batzuk garbitzaille ta beste batzuk eztekarle, argizarigin, begiratzaille, atezain, gudari, urekarle, urunekarle ta masajistak dirala?
- Zugatzetan dindilizka lotuten diran erlakumeetan guztitariko erleak dirala, zaharrak, gazteak, erregin bat edo bi ta erlemando batzuk?
- Erlakumeok udako beroakaitik urtetan dabela ordurarte eukj daben etxe estutik?
- Eztenkada baten miña ariñagotuteko zaurian ezta edo lesiba ipiñi daitekela?

KINTANA

ORMAZA

Konserbako Arraiñak

Marka ezagunak:

«Ormaza» - «Raf» - «Cho»

Arrain preskoa exportatzen dau


ORMAZA'ren konserbak, onenak.

Fabrikak:

BERMEO'n: Tel. 95 ta 580

eta Korreosan, 9-gn. zenb.

MUNDAKA'n.



FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan

MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale
Zerra — Uruga
Uraska

Europako aurrerapenik onenak
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)

Zumarragako egun zoragarria

Xalbadorreri omenaldia

Joan dan abenduaren 10ean, illaren bigarren domekan, omenaldi itzala egin eutsuen Xalbadorreri Gipuzkoako bertsozaleak.

Goizeko amarterdian, Meza santua Urretxuko Aita Pasionisten eleizan. Meza ederra, Jaungoikoari asko gustetan jakozanetarikoa, arimeak eta gorputzak, izate osoak parte artzen dabenekoa. Txistulariak, bertsolariak eta abar batu zirean. Predikua, dana bertsoan, Aita Agustin, olerkari bikaiñak. Eta zelako predikua!

Eguerdiko 12etan, Itzalo zinemako salan, omenaldia. Xalbadorrez gaiñera, an ikusi genduzan Ustapide, Lopategi, Lazkao Txiki, Mattin, Lasarte, Basarri ta Azpillaga. Bertsolariarik onenak, euren lagun aundiari ospe egitera etorriak.

Bosteun-seireun persona batu zirean teatroan; eta, Xalbador bere lagunakaz salearen erditik barrura sartu zanean, danak asi jakozan goraka ta esku zartaka. Baiña egun au, erreparaziñozko egun bat lakoxea zan gure anaia giputzentzat. Orduan, ixiltasunik aundienean gengozala, magnetofonotik entzun genduzan, Donostian Xalbadorreri egindako txistuak eta beronek bertsoz emoniko erantzuna. Barrero txaloak eta txaloak. Basarrik

edegi eban jaialdia, eta Xalbadorreri bertsoan saludu bero bat egin eutsan.

Gero bertsolari guztiak, Luzio Gabiria buru, baktzak bere omenezko saldua egin eban. Danak adierazo eben, ze estimutan euken gure Urepeldarra.

Sei urteko mutiko txiki batek, bertso polit batzuk, guztiz unkiarriak, kantatu eutsuan. Euskal eskola bateko 150 umeetarikoa bat zan bera. Ze ondo egiten direan gauzak Gipuzkoan!

Omenaldi bazkaria, Urola ostatuan; eta an be, bertso ederrak entzun genduzan.

Felix culpa, edo zorioneko pekatua! Xalbadorrek berak esan eban lez, «doblezka eta erredoblezka erreparatu dute gure mugaz haraindiko anaiek Anoetako afruntua». Tesia, antitesia, sintesia: olan ei doa mundu onetako bizia. Orain lenengo biak igaro direan ezker, ez dago dudarik, alkar obeto konprenitzera, estimatzera eta maitatzera goazala euskal probintzia guztietako anaia.

Baxenabartarra
(Herria asterotik artua)

ANAI BERRIOTXOA'REN ATALAK

EUSKERAZ ONDO IKASTEKO BIDE ERREZA

Eskutartean daukat Anai Berriotxoa prallearen azken liburua, bizkaieraz idatzia. Ta irakurten egon nazan bitartean, ainbat pentsakizun etorri yataz burura.

Zenbat irakurten dogu euskeraz? Zenbat idatzi? Ta euskeraz leidu ta eskribidutea bearrezkoa dogu gure izkuntzan ondo berba egiteko.

«Atalak» da Bitano (au da, Anai Berriotxoa'ren izernordea) bizkaitar idazleak eskiñi dauskun azken liburua. Ta benetan atalak dirala, andik eta emendik artuta. Ez da liburu sakon bat, ariña baño. Ez da filosofia, jolasa baño. Baña jolasean be beti ikasten da zeozer, eta «Atalak» idatzi ontan badago zer ikasi. Lenengo, idazkeran, bizkaiera jatorran. Gero, ainbat barri interesgarrietan.

Liburuaren askeran, iru itzaurre edo presentaziño. Egilleak: Erkiaga, aita Lino Akesolo ta San Martin.

Nik, liburu bat eskutartean artzen dodanean, alboan daukat papera ta boligrafoa, ta irakurten dodazan itz eta esate sakonak eta politak, markau egiten dodaz. Eta gaur, idatzi onen balioa zuen aurrean iminteko, egoki izango da markau dodazan esana batzuk koplatea.

Lenengo, Erkiaga'ren iritzi bat: «Idazlearen arimea agertu deusku oraingoan, eta erriaren izkerea naiago dauala, gramatika-arauz zeatz eta estu ibiltea baiño».

Ikusi orain Lino Akesolo'ren itzaurreko olerki zati polita:

Onak onan ikusiz
eztana biguntzen,
zelango galtzaidua
izan bear daben!...

Akesolo'k berak diñosku aurrerago: Euskal izena baño euskal izana dogu bearrago. Eta izate au ez deusku ez lurak ez odolak emongo, geure arimearen ordezko lez dogun euskereak baño.

San Martin'ek, bere itzaurrean, olan esaten dau: Anai Berriotxoa'k ondo daki jakintzak eta lanak bakarrik azkatuko gaitula. Eta egia da. Alperrikakoak dira asmo onak eta itz politak. Lana da bear doguna, euskera ta Euskal Errria goralduta zabaltzeko.

San Martin'ek berak, aurrerago, olan diño: Ordua da, gure aberkide euskaldunak erdera apaiñean euren buruak luzitzea uzteko. Tamalez, ori jazoten da euskotar askoren artean. Euskera ta Euskal Errria maite dabela esan, eta gero erderaz egin. Ordua da komedi ori amaitzeko.

Eta orain goazan liburuaren barrura, au da, Anai Berriotxoa'ren lanera.

Len esan dogunez, ez da lan sakona, ariña baiño. Ez dau Arestia ta Lete'ren tristura. Anai Berriotxoa irribarrez yatorku idatzi ontan. Eta nire ustez, bietarikoak, au da triste ta sakonak, eta irribarrezkoak, bietarikoak bear doguz. Eta ori, ezin garelako bizi edo beti triste edo beti barrerrez. Bizitza da alde illun eta alde argikoa, jai-egun eta lan-egunetakoa.

Esan dogunagaitik, Berriotxoa'ren liburu ontan, esana sakonak baño esana politak dagoz. Ara batzuk:

Agatzak (areitzak) gorri-gorri eta pagokori ori-ori, neguan edurra jausten dan moduan jausten ziran orriak lurrera.

Dana gorri eta baltz, sua eta eriotza. Odolez ganezka ibarreko ibai baketsua.

Dana gorri-gorri eta baltz-baltz. Dana negarra, sua, odola eta eriotza.

Esana ontan ba dago sakontasuna: Bate dauka azkenik, neurrik, olerkaria bizi dan munduak? Eta beste onak: Munduko ixillezko bide guztiak dagoz zabalik...

Arantzarik ez itxasoan? Munduko arantzak bigundu itxasoak?

Euskotar askori, Euskal Errria'n bizi diran askori, galdera au egin bearko geuntsien: Gure euskaldun arima ta izkuntzaren jabe izan baziña zu Perse...

Eta galdera orreri jarraituaz au esan leiteke: Tamal-emote, lastima au, otoitz biurtzen iata. Ta otoitz onegaz batera, lan andi bat, guztion artean, euskera ta euskal kutsua gure errian zabaltzeko.

Juizioa zabaldu yako gaur folkloeari. Batzuk kontra, besteak alde. Anai Berriotxoa'k bere iritzia emoten dau: Ezta galduko gure txistularia, gure mendi-ibarrak Euskalerrri diran artean. Komeni be ez txistularia galtzea. Sustrai zarretik datorren deia, txistulariarena. Eta nik diñot: Amen. Au da, osorik konforme.

Eta azkenez, geyegi ez luzatutearren, au kopiauako dot «ATALAK» liburutik: Geldirik egotea baño obeto izango da zeozer egiten astea.

Eta zeozer egiten aste ori izan leiteke ATALAK liburu au irakurtea, leidutea. Bizkaieraz, edozeñek ulertuteko, entendiduteko moduan. Tamalez, ez daukaguz bizkaeraz liburu asko idatzita. Irakurri dalguzan daukaguzan apurrak, gure euskera landu ta apaiñagoa izan daiten.

Xabier Gereño

PARISEN, EUSKALDUNEN BATZAR BAT

Joan dan abenduaren 15ean, osterantzeko egunetan baiño mobimentu geiago egon zan *Eskual Etxean*. Lafitte jauna etorri jakun, konferentzia bat emotera.

Egia esan, bere itzaldiaren geia ez zan egoki egokia, entzule asko ekarteko: «Pentsamentu korrontak oraingo euskaldun idazlarien artean».

Lafitte jaunak euskaldun idazlari guztiak euki zituan begien aurrean, euskeraz naiz erderaz idazten dabenak, Euskalerrian naiz atzerrian bizi direanak. Euretariako 193, esate baterako, euskaldun

amerikanoak dira.

Asko ikasi genduan ara joan giñeanak, ainbeste euskaldun jakintsu egoanik be, gutariko geienak ez genkian-da.

Lafitte jaunaren presentatzaillea, Legarralde jauna izan zan; goresmen aundiak egin eutsozan izlariari bere konferentzia ederragaitik. Jarrailan, parte artu eben alkar izketan Manuel de Irujok, Maury jaunak, J. K. Abeberrik eta batetzere Roby-Lattès andreak. Berrogei bat lagun batu giñean. Gero moltzo bat errefreskatzera joan gintzazan alboko os-

tatu batera: beste askoren artean, an egozan Dunate jenerala, Borthayre kantari famadua, Irigoyen abadea, Dokelar, Belascain, Michel Irigoyen irakaslea eta abar.

Dana dala, arratsalde on bat pasatu genduan an egon giñeanak; eta eskerak emoten deusaguz Aita Lafitte adiskideari bere euskal jakituria ain edert: azaldu euskulako.

An egon zan bat
(HERRIA asterkotik artua)

URTE BARRIRAKO LIBURU BARRI BI

Asi dogun urte onetan erosi al izateko, liburu bi aiatu gura neukez, biak guztiz eder eta baliotsuak, biak Euskalerriri jagokozanak, naizta biak erderaz idatzita egon: bata frantsesez, Navarre Romane deritxona; bestea, Pintura Vasca deitua, espainiolez.

NAVARRE ROMANE

Lenengoa, Zodiaque koleziñoko 26garren liburu da. 37 franko ta erdian salgei. Georges Guillardek, Sorbonako irakasleak emon deutso itzaurrea; eta liburu bera, Aita Luis Maria Lojendiok, Leireko beneditanoak egin dau.

Naparroako erreñua, XI ta XIIgarren gizaldietan, bere betean eta gorenean egon zan denporako jazoerak jakin gura dituanak, irakurri leike liburu au. Bertan agertzen direan fotografia aberatsak eta ingu-

ruko xehetasunak erakutsiko deutsoe, ze sakon sartuta egon zan orduan Euskalerrria Europako artearen eta kulturearen gorabeeretan. Geiago dana: liburu irakurrita gero, ez dogu uste iñor egongo danik, Naparroako aberastasunak bere begiz ikustera ta mirestera joan barik geratu gura izango dauanik.

Gure eskerrak biurtzen deutseguz lan eder onegaitik Aita Lojendiori ta Naparroako Diputaziñoari. Bakar bakarrik eskatuko geunskioe, alik lasterren bigarren liburu bat atara leiskueta, eta bertan erakutsi Naparroa Aundiko, au da, Euskalerrri guztiko aberastasunak, Zuberotik asita Arabako puntaraiño.

PINTURA VASCA

Bigarren liburu Bilbaon agertua da, eta 1400 pesetan salgei. Diru asko dala esango

leukenari, prezioa ondo ipiñita dagoala erantzungo geunskio. Naparroaren historiak erakusten badeusku, Euskalerrria —aintxiñako sekuluetan— Europako kulturatan ondo sustraituta egoala, orain liburu onek agertzen deusku, gaurko gizaldian be historia berak jarraitzen dauala.

Liburuaren egilleak, Manuel Llano Gorostizak, gauza on bat argitaratu deusku, Baionako euskaldun pintoreak guztiz bazterrean itxiten baditu bere.

Gizaldi onetako pintoreen lanak ezagutu nai dituanak, irakurri egin bear dau Gorostizaren liburu; bertan ikusiko dau gaiñera, euskal artearen oldarra beti aurrera doala, gerra osteko artista barrieri, Oteiza, Basterrechea, Chillida ta euren lagun guztieri esker.

P. C.

(HERRIA asterkotik artua)

EUSKAL ABESTIAREN IV JAIALDIA

KANTUAK BIALTZEKO BIGARREN DEIA

Asko izan dira, Laugarren Jaialdi onetarako bialdu direan abestiak. Juradu batek aukeratu egin bear ditu euretariako onenak, gero Festibalean abestuteko. Juradua, abenduaren 9an batu zan; eta oraiñarte eldu direan abestiak aztertuta gero, ago batez erabagi eban, kantu orreekaz ezin eitekela Euskalerrriko publikuarentzat kontzertu on bat antolatu, bear dan besteko balio ta kalidaderik ez eukelako. Eta orregaitik, Juraduak eskatuten eutson Organizaziñoari, bigarren dei bat egiteko, eta luzatu epea euskal musikalarieri, kantu geiago bialtzeko.

Organizaziñoako Komite Nagusiak onartu egin dau Juraduaren gomendioa. Orregaitik, martiaren 31rarte bialdu leitekez kantu barriak. Konkursurako kondiziñoak, igazkoak dira; eta ezagutu gura dituanak, eskatu leiskioz CINSa etxeari, Avenida del Ejército, 18, Bilbao (14), edo irakurri leikez *Anaitasunan*, 1967an iraillaren 23an agerturiko numeruaren 10garren orrialdean.

Martiaren 31tik aurrera, Juraduak aztertu ta estudiatu egingo ditu kantu barriok; eta eurokaz batera, barrirc esamiñatuko dauz lenengo plazuatan bialdutakoak.

Luzabide au dala-ta, agiriko kontzertuak datorren urrian izango dira gitxi gorabeera.

EASO ABESTALDEA TA MARI LURDES IRIONDO

BILBAON

- * BUENOS AIRES TEATROAN, KONTZEZIÑO EGUNEKO KANTU JAIALDIA
- * GUZTIZ ONDO SAN ANTONGO ORFEOIA
- * EUSKAL MEZAREN AKATSA
- * MARI LURDESEK GAUZA BATZUK ONDO, BESTE BATZUK TXARTO
- * EASO ABESTALDEA EZ DA LENGOA

Ba dakizuen lez, Kontzeziño egunean, Kantu Jaialdi eder bat izan zan Bilbaon, Buenos Aires teatroan. Jaialdi au, urtean urtean atonduten izan dau Gillermo Asteintza jaunak, Maquinaria Eléctrica Bilbaoren jereñteak. Aurtengo Jaialdia zazpi-garrena da. Anaitasunaren aurreko numeruan esan geuntsuen lez, artikulu onetan geure eritxia emongo deutsuegu Jaialdi orren gaiñean.

Teatroa, bete beteta egon zan. Bilbaoko Radio Popularrek, Jaialdiaren erretrasmisiño direktua emon eban. Presentaziñoa barriz, Francisco Javier Garcíaren kontura egon zan.

LENENGO PARTEA

Lenengo parte osoa, Jose Maria Gonzalez Bastidaren Euskal Mezak bete eban. Bastida Maixua, Bergararra da; eta bere meza, lenengo aldiz entzuten genduan Bilbaon.



Andoni Arregi

Andoni Arregi koru zuzendari zala, parte artu eben mezan: San Antongo kanta-

riak, txistulari batzuk eta Bilbaoko «Gaztedi» taldeko lau dantzarik.

Orfeoiak, guztiz ondo abestu eban. Koruko sail bakotzak ederto bete eban bere zeregiña; eta koru osoak, partitureak agintzen eban legez jardun eban. Dantzariak eta txistulariak tankera onean egon zirean, Arregi Maixuaren ziñueri beti adi. Berau, ondo egon zan: mobimentuetan neurridun, agintaritzan zeatz, matizaziñoan sakon.

Meza ederra, ondo landua, armonizaziño baliotsu bategaz ornidua; alandaguztibe, nire ustez, akats aundi bat daukona. Bastida Maixuak geiegi erabilten ditu erriko soñuak, euskaldun guztiok lar ondo ezagututen doguzanak. Bere garako musikagillle batek, euskal melodia barriak asmatu bear izan zituan, eta eskiñi euskaldunori benetako Euskal Meza barri bat.

BITARTEA

Bien bitartean, Mari Lurdes Iriondok jardun eban, gitarra ta guzti.

Euskeraz ulertzen ez dauan edozein kritikalarik esango leuke, Mari Lourdes ez zala ondo egon. Nire ustez, bere abestiak ez danke tekninarik, ez dabe gauza aundirik ballo musikarean aldetik. Nire eritxiz, bere abestien bolioa, musikan barrik, beste leku baten jarri bear dogu: euskeran, euskeraz azaltzen direan pentsamentuetan, Mari Lurdesek berak berba bako-txean ipinten dauan emotibidadean. Ortze dago euren balioa, eta orrexek berotuten dau publikua.

Beste ereti baten gura izango neuke, Mari Lurdesen estiloaren gaiñean berba egin. Estilo personala benetan. Ondo merezietan dau berak, bere abestien benetako bidea danon artean erakutsi deiogula.

Txalo asko entzun eban, eta erregalu eder bat egin eutsoen azkenean. La Casillako Umezurtz Asiloko ume bik lora txorta bana eskiñi eutsoen; eta euretariko batek —neskatoa bera— euskeraz egin eutson mikrofonetik saldua.

BIGARREN PARTEA

Bigarren partea, dana izan zan Easo Abestaldearentzat eta bere zuzendari Bastida Maixuarentzat.

Entzun dozue iñoiz esakera au: «Egin fama lenago, eta lo egin gero»? Gure ustez, orixe egin eban Bilbaon Easo Koruak. Aurtengo jardunaldi onetan, ez zan egon len-goetan baizen ondo. Abeslariak eurak be, iñoizko gitxien etorri zirean.



Bastida Maixua

Kontzertuan bertan, gero ta indar gitxiagogaz abestu zirean kantuak. Alde makala «Amak ezkondu ninduen» lenengo abestia eta «Gernikako Arbola» azkenengo abestiaren artean! Abeslariak ez eukan batasunik; eta uts aundiak egin zituen gaiñera, bein baiño geiagotan. Kantu batek bere, ez eban errepetiziñorik merezidu. Alandaguztibe, asko gustatu jakun Bastidaren «Maite Miña», Chocarro baritonuak kantatua.

Donostiko Abestaldeak otz itxi ninduan. Ba dakit, gauza erreza ez dana, kategoria altu bat beti eukitea. Baiña Easo Korua beartuta dago orretarako, dudarik бага.

Entzuleen artean be, aurkitu nituan persona ikasiak, neure eritxi berberau daukenak. Gauza txarra da, izen ona galtzen astea. Nekez eltzen da tontorrera; ondora barriz, ez da luzea izaten bidea.

ESKERRAK

Neure izenean eta Anaitasunarenean, eskerrak Asteintza jaunari eta bere laguntzailleeri, euron artean Koldo Larrañagari, urtero alako kontzertu ain ederrak entzuteko erea eskinten deuskuelako. Eskerrak eta datorren Jaialdirarte.

Jose Luis Bengoa Zubizarreta

Nor nazan esan bearrik ez dot nik. Euskaldunok, eta erdaldunak be, ondo dakie nor nazan eta nun nagon. Izan be, ederra naz gero, Mundaka.

Nire altzotik, urtero zenbat igaroten diran. Datozan guztiak artzen dodaz ondo. Edonundik, Europako errialde geienetatik iatortaz, neugaz udaldi on bat igarotzera.

Bizkaiko izadi edertasunak ikusi nai leukeezanak, aurrez datoz ona. Ain toki onean nago...

Alde batetik, or dot Gernika; ni baiño uri galantagoa, iolastokiz eta iantokiz be tea. Itxas aldetik emen dot Bermeo. Erri langille ta neure auzo erria. Ni neu, bion bitartean, itxasoko kresaletan erri-barrenak umelduta. Oñiak otz eta burua bero.

* * *

Auxe da egia. Oñiak otz dodaz eta burua bero. Olan dagoana, ba dakizue, ondo ez dago. Oñiak otz, bizitza urri dodalako. Burua bero, bizi gura neukelako eta eziñik nagoalako.

Nire goraberak sarri agertzen dira ortik erderaz, zabaltzen diran izparringietan. Ona etorteko diñotse guztiak, turismu eratzailleak, ni lakorik ez dagoala-ta. Nire itxasertza, kresal gardena, sukaldari onak eta abar, aitatzen dabez.

Nire izatea azalez erakusten diardue. Baiña biotza, emen barruan negarrez da roadana, au eztabe iñon erakusten.

Onexegaitik, maiteok; benetan maite nozuenoi zerbait esan bear dautsuet, barrutik ezagutu nagizuen.

* * *

Len nik neban bizitza gogoratuta, iota gelditzen naz. Ai ni len... Ez egizue aztu au: Gernikako Batzarretan lenengo Iarlekua neurea zan, A emoteko, gaur baiño geiagotxu nintzalakoa dot.

Itxaso ta ni be aspaldiko lagunak izanda, zenbat gizon eder emon dodazan lemarako. Itxasoak asko lagundu dausku.

Orain eun urte, ondo gogoan dot. 2.250 erriलगun nebazan. Or dozue nire lengoa, laburrean.

Gernikan azkenengo batzarrean izan nintzala, ogetamar urte ointxe igaro dira. Ezta gitxi ni lako batentzat. Arrezkero gure uri ta mendit asko, garretan ikusi dodaz.

Nire biotzeko zauria, zarra ta txarra da.


* * *

Gaur erritarrak 1.500 dodaz. Udaldian 5.000 ingurura elduko dira. Baiña udakoak, areik ez dodaz neureak. Bizitza emotera barik, dodantxo kentzen iatortaz. Neure neureak zeuok zaree; uda ta negu, ementxe amaren ondoan bizi zarenok.

Ez dozue uste, baiña ondo ezagutzen zaituet; eta ementxe esan bear dautsuet «don-fragak» iñoz esan ez dautsuen.

Nire biziak zeuok zaree, mundakarrok. Eta ara: orain eun urte baiño 700 lagun gitxiago dodaz. Olan ez noa ondo.

Etxe barri asko egiten diardue emen; baiña orreik niretzat ez dira. Urtean iru illabeterako baiña zabaltzen ez diran etxeok, nire eriotza dira. Txori bako kaiolak. Etxe apaiñiak, arroak; baiña biotzik ez da-



be. Orrein iaubeak, ez nabe asko maite. Ez datoz nigaitik, zeuokaitik be ez. Eurak, ondo bizitzera datoz. Or urrago Benidorm balego, ara ioango litzakezala uste dot. Batzarrak Gernikan egitea debekatu euskuenetik, ez goaz ondo.

Nik dodan miña, zeuok maiteok, bearlekurik emen ez dozuelako; egunero ortik zear, Bermeora, Gernikara, Muruetara ta ioaten ikustean.

Udan etorten diran eukitsuak, illobi dirudien etxe gangarrok egin bearrean lantoki on batzuk egingo balebez...

Agintari diralakoak, nire kaieko ondarrak atara, len egiten zan lez, eta ontzi andiak be sartzeko lako tokiak egingo balitaz...

Egunero ortik, lanera ta ikastera zoazenek, emen ori egiteko lekuak izanik, emen izango baziñee...

Orduan negu zeln uda, bizi geiago izango neuke. Orain noanez ioan ezker, laster izango naz bigarren Biarritz, Iru illabetean bizi; beste bederatzia, gorp.

* * *

Euskera dala-ta, apur bat lotsa naz ezer esaten be. Ez dakit errua nori bota. Guzurrik ez dot esan gura ta ara...

Inguru guztiko errietan, euskeraz gitxien egiten daben seme-alabak, neuk, Mundaka onek, dodaz. Erdaldun utsak 108 zaree. Besteok, apur bat baiño ezpada be, guztiok dakizue, baiña egin nok?

Matrailak be gorrituta nago; au da buruaren beroa. Ni, Mundaka, erdaldun erria. Gaixo au gaurkoa ezta. Len be, euskera iakinarren, nire semeak olantxe zlarduen erdera. Nire erritarren gaixo bat beti izan da, andi izan gurea, arrokeria. Atzerritik datozenak egiten daben guztia egin bear. Eta iakiña, iñor ez dator Mundakara euskera egiten.

Itxasgizon ikasiak txarrenak izan dodaz;

abade ta monjak bardin. Zeozer ekiela uste eben guztiak, erdera beti. Azkenean guztiak.

Gatx au oso zaar egin da. Zelan edo nok osatuko dau? Au lotsaria! Erriko agintariak, ezer ez dabe egingo. Geienak, euskera eztakielako, eta gura be eztabelako.

Abade ta monjak, zer? Au ezin daiteke ixildu. Iru abade dagoz errian. Irurak euskaldunak. Ta zer? Ba, Mundakako eleizan, euskera baiño geiago egiten dala erdera. Umetxo guztieri, kristau ikasbidea, erdera uts-utsez emoten dautseela. Abade ta monjak: lotsagarria. Zein da, ba, zuen lana?

Entzun dodanez, or dabiltz abade asko lantokietara-ta ioan bearko dala esaten. Mundakakoak ez dira ioango. Errezago dana, euskaldun umeai Katekesia euskeraz emon gura ez dautseenean?

Berreun ume baiño geiago dabiltz neure ikastoletan: euskera, ulertu beintzat geienak; eta gure abadeak ori be ukatu? Mundakan «Aita gurea» dakien umeak, etxean irakatsita dakie. Burua bero ta oñiak otz badodaz, orain ba dakizu zergaitik dan. Zigorra erabilerik banau...

Neurea izan neban Etxeita'tar Jose Manuel. Euskeraz liburu ederrak itxi euskuzan. Gaur Mundakatarrak ez dakie nor zanik be. Berak egindako liburuak, iñok eskuan artu bez.

Azkue andiaren ama be emnegoa neban. Gaurko Mundakako amak ezingo dabe egin alako semerik. Ordu larriak, nireak.

Auxe da gure burruka gaur. Nik bizi gura dot. Nik Euskalerrri bizi izan gura dot. Baiña ni ori, zeuok zaree, seme-alaba maiteok. Nire osasuna gura badozue, urte batzuk barru erri il bat, erdal erri bat izatea gura ezpadozue, itxartu! Erdaldunen tzat itxi euren gauzak. Zaindu egizue doguntxo. Ez bizi atzerritarrei begira. Geure esku izateko, Gernikako 1.º iarlekuan barru iezarteko, bizitza nai ta nalezko.

Zeuek dozue eskuetan nire bizi.

SALATARI